ADMINISTRARIEN KIDEGOKO LAN-POLTSA

HAUTAKETA-PROZESUA

Hautaketa prozesuak hiru ariketa izango ditu. Lehenengo biak egun berean egin ahal izango dira epaimahaiak hala erabakitzen badu.

Lehenengo ariketa.- Teorikoa, **Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa,** izangai guztientzat**.** Erantsitako gai zerrendari buruzkoa. Aukera anitzeko galdera-sorta idatziz erantzun beharko da, epaimahaiak ezarritako denboran. Gehienez **10 puntu** lortu ahal izango dira.

Ariketa zuzentzerakoan, zuzen erantzundako galdera-kopuruari akatsen herena kenduko zaio (E= Z - A/3). Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitza dutenek ez dute zigorrik izango.
Epaimahaiak, ariketa-egileen izenak jakin aurretik zehaztuko du proba gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazioa.

Bigarren ariketa.- Psikoteknikoa. Nahitaezkoa eta ez baztertzailea. Hautagaiak bete beharreko lanpostuen profilari nola egokitzen zaizkion ebaluatzera bideraturiko proba psikoteknikoa egitea izango da. Ariketa hau, gehienez ere, **10 puntuz** balioetsiko da.

Bigarren ariketa, lehenengoa gainditzen duten izangaiei kalifikatuko zaie soilik**.**

Hirugarren ariketa.- Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa Euskararen jakite-maila egiaztatzea. 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak izango dira. Ariketak GAI edo EZ GAI kalifikazioa izango du.

Ondoko izangaiek EZ dute ariketa hau egin beharko:

a) IVAPek emandako 2. hizkuntza eskakizunaren edo honen baliokidea den edozein egiaztagiriren jabeek. Kasu honetan, ondoren adierazten den bezala egiaztatuko da hizkuntza eskakizuna:

   IVAPek, HABEk, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandako titulu edo egiaztagiri baten jabe direnek aplikazioan bertan egiaztatu ahal izango dute jabetza hori. Horretarako bere titulua online egiaztatu beharko dute. Sistemak dagokion erregistroan jasotako informazioa egiaztatuko du eta eskaerari gehituko dio.

   Aurreko atalean aipatu ez den titulu edo egiaztagiria dutenek, online egiaztapena egin ez dutenek edo titulua geroago lortzen dutenek, alegatutako agiriaren kopia ekarri beharko dute bigarren ariketa egiten den eguna baino lehenago..

b) Hizkuntza eskakizuneko azterketa egitetik salbuetsita daudenek, 47/2012 Dekretuaren arabera, ikasketak, osorik edo zati batean, euskaraz egin dituztelako. Izangai hauek hura alegatuko beharko dute eskabidean, eta bigarren ariketa egiten den eguna baino lehenago ekarri behar dute egiaztagiriaren kopia, ikasketak amaitu dituzten ikastetxeak edo unibertsitateak emana.

I Eranskinean zerrendatzen dira 2.HEaren baliokide diren titulu eta egiaztagiriak eta Hizkuntza Eskakizuneko azterketa egitetik salbuesteko baldintzak.

IT Txartela ziurtagirien egiaztapena.- Izangaiek, euskara ariketaren data baino lehenago ondoko IT Txartelen jabe izan behar dute:

- Microsoft Word oinarrizkoa
- Microsoft Access oinarrizkoa
- Microsoft Excel oinarrizkoa
- Microsoft Outlook

Aipatutako egiaztapen-agirien jabe ez diren izangaiek, berriz, euskara ariketaren dataren aurretik lortu beharko dute, eta horretarako, dagokien egiaztapen-proba gaindu beharko dute, honako prozedura honen arabera:

1.- Egiaztapen-proban parte hartu ahal izateko, **IT Txartela**ren web orrian edo **KZgunea** sareko gune egiaztatu batean eman beharko dute izena. Guneen zerrenda osoa honako helbide elektroniko honetan begiratu daiteke.

2.- Proben garapen eta kalifikaziorako, egiaztapen-agiriak ematen dituen organoak ezarritako arau orokorrei jarraituko zaie.

3.- Ezagutza informatikoen egiaztapena eskuratzen duten izangaiek, edo aurretik dutenek, ez dute alegaziorik egin beharko edo inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko horri buruz.

4.- Euskara probaren aurreko egunean IT Txartelen egiaztapena lortzen ez duten izangaiak ez-gaitzat joko dira, eta hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko dira.

Prozesuan parte hartzeko titulazioaren egiaztapena. Derrigorrezko ariketak gainditzen dituzten izangaiek ekarri beharko dute hautaketa prozesuan parte hartzeko bidea ematen duen titulu akademikoaren kopia digitalizatua (aurreko eta atzeko orrialdeak). Dokumentua izangai bakoitzak jarri beharko du aplikazio informatikoan, epaimahaiak ezartzen duen epean.

Titulu akademikoaz gain, ondoko agiriek ere balio dute:

- Titulu ofizial bati lotutako ikasketen ziurtagiria, titulu hori eskuratzeko dagozkion tasak ordaindu izana ere egiaztatzen badu.
- Tituluaren ordezko ziurtagiriak edo ziurtagiri osagarriak, indarrean dauden arauek ezarritako ereduarekin bat badatoz.
- Titulua eskuratzeko tasa ordaindu izana egiaztatzen duen agiria edo erreziboa.

BERDINKETAK EBAZTEKO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak, berdinketak hausteko ondoko irizpideak ezarri ditu:

1. Puntuaziorik altuena lehenengo ariketan
2. Erantzun zuzen gehien lehenengo ariketan.
3. Hurrenkera alfabetikoa. Pertsonal zuzendariaren 2016ko martxoaren 23ko ebazpenaren arabera “O” hizkia erabiliko da erreferentzia moduan.

Berdinketak erabakitzeko ez da aplikatuko Emakume eta Gizoenn berdintasunerako 4/2005 Legeko 20.4ª) artlkuluak xedatutakoa, Kidego honetan emakumearen presentzia %40 baino handiagoa delako.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilak 20an

Ana Altuna Riaño
Epaimahaiaren idazkaria

EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTAGIRIEN ARTEKO BALIOKIDETZAK HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOARI EGOKITUAK

Euskara-egiaztagirien baliokidetzari buruzko 297/2010 Dekretuak euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuarekiko baliokidetza ezartzen du.

Era honetara, HAEE-IVAP-ek, HABEk, Osakidetzak, Ertzaintzak, Hezkuntza Sailak, Euskaltzaindiak eta Hizkuntzetako Eskola Ofizialek emandako agirien baliokidetzak ezartzen dira eta Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1, B2, C1 eta C2 mailekin parekatzen dira. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak eta Iparralde Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basque erakundeak emandako EGA tituluen balioa ere jasotzen du Dekretuak. Era berean, kontuan hartzen dira 263/1998 Dekretuak, urriaren 6koak, EGA ziurtagirirako ezartzen dituen baliokidetzak.

Bestalde, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak xedatzen duenaren arabera, ikasketak euskaraz eginda, titulazio akademiko ofizialak lortu dituzten pertsonek ez dute euskararen ezagutza beste bide batez egiaztatu behar izango enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuetan. Dekretuak ezartzen du, halaber, zein ezagutza maila egiaztatzetik salbuesten duen titulazio akademiko bakoitzak. Dagozkion ikasketak amaitu direneko ikastetxe edo unibertsitateak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatzen da salbuespena.

Enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuei dagokienez, ondoko ziurtagirietako bat dutenek **1. Hizkuntza Eskakizuna** egiaztatu dutela ulertuko da:

- IVAP-HAEEk emandako 1. hizkuntza eskakizuna.
- HABEk (Kultura Saila) emandako 1. mailako ziurtagiria.
- Osakidetzako 1. hizkuntza eskakizuna.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskal ikasketen 3. maila gainditua izatea (Antzinako Ikasketa Plana, 47/1992 Errege Dekretua).
- Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako Tarteko Maila (1629/2006 Errege Dekretua).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua, 2008ko apirilaren 16az geroztik eskuratu bada, curriculum guztiaren %50 baino gehiago euskaraz egin bada eta Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia maila guztietan gainditu bada. Ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.
- Teknikari titulua (Lanbide Hezkuntzako Erdi mailako zikloa), 2008ko apirilaren 16az geroztik eskuratu bada eta curriculum guztiaren %50 baino gehiago euskaraz egin bada. Ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.

Ondoko ziurtagirietako bat dutenek **2. Hizkuntza Eskakizuna** egiaztatu dutela ulertuko da:

- IVAP-HAEEk emandako 2. hizkuntza eskakizuna.
- HABEk (Kultura Saila) emandako 2. mailako ziurtagiria.
- Osakidetzako 2. hizkuntza eskakizuna.
- Ertzaintzako 1. hizkuntza eskakizuna.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Irakaspostuen 1. hizkuntza eskakizuna.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskal ikasketen 4. maila gainditua izatea (Antzinako Ikasketa Plana, 47/1992 Errege Dekretua).
- Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako Maila Aurreratua (1629/2006 Errege Dekretua).
- Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza Sailak emandakoa eta 66/2005 Dekretuak araututakoa.
- Batxilergoko titulua, 2008ko apirilaren 16az geroztik eskuratu bada eta curriculum guztiaren %50 baino gehiago euskaraz egin bada. Ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.
- Goi mailako teknikari titulua (Lanbide Hezkuntzako goi mailako zikloa), 2008ko apirilaren 16az geroztik eskuratu bada eta curriculum guztiaren %50 baino gehiago euskaraz egin bada. Ikastetxeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.

Ondoko ziurtagirietako bat dutenek **3. Hizkuntza Eskakizuna** egiaztatu dutela ulertuko da:

- IVAP-HAEEk emandako 3. hizkuntza eskakizuna.
- HABE (Kultura Saila) emandako 3. mailako ziurtagiria.
- Osakidetzako 3. hizkuntza eskakizuna.
- Ertzaintzako 2. hizkuntza eskakizuna.
- Eusko Jaurlaritzako zein Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailek eta Iparralde Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basque erakundeak emandako Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).
- Euskaltzaindiaren D mailako agiria.
- Labayru Institutuak emandako 3. mailako ziurtagiria. 1982ko irailaren 19koa edo lehenagokoa).
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Irakaspostuen 2. hizkuntza eskakizuna.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako 5. maila edo gaitasun maila (Antzinako Ikasketa Plana, 47/1992 Errege Dekretua).
- Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako menderatze operatibo eraginkorreko Gaitasun Maila (C1), 46/2009 Errege Dekretuak arautua.
- Unibertsitate ikasketak, 47/2012 Dekretuak ezarritakoa betetzen dutenean (banan-banan aztertu beharrekoa). unibertsitateak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da
- Euskal Filologiaren alorreko Irakasle-diplomatura.
- Bizkaiko edo Gipuzkoako Irakasleen Unibertsitate Eskola Publikoetan, euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura. 1985ean edo ondoren lortutakoa.
- Donostiako Elizbarrutiaren Irakasle Eskolan eta Eskoriatzako Irakaslegoaren Unibertsitate Eskolan, euskal adarren batean egindako irakasle-diplomatura. 1984an edo ondoren lortutakoa.
- Euskal Filologiako lizentziatura, 2008ko apirilaren 16a baino lehenago lortutakoa.

Ondoko ziurtagirietako bat dutenek **4. Hizkuntza Eskakizuna** egiaztatu dutela ulertuko da:

- IVAP-HAEEk emandako 4. hizkuntza eskakizuna.
- HABE (Kultura Saila) emandako 4. mailako ziurtagiria.
- Osakidetzako 4. hizkuntza eskakizuna.
- Unibertsitate ikasketak, 47/2012 Dekretuak ezarritakoa betetzen dutenean (banan-banan aztertu beharrekoa). Unibertsitateak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar da.

HAEE-IVAP	1HE	2HE	3HE	4HE
HABE	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
OSAKIDETZA	1HE	2HE	3HE	4HE
ERTZAINTZA		1HE Ertzaintza	2HE Ertzaintza	
HEZKUNTZA SAILA		Irakaspostuen 1HE	Irakaspostuen 2HE	
		Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria	EGA	
HIZKUNTZA ESKOLAK	3. maila (antzinako plana)	4. maila (antzinako plana)	Gaitasun maila edo 5.a (antzinako plana)	
	Tarteko maila (plan berria)	Maila aurreratua (plan berria)	C1 Gaitasun maila (plan berria)	
NAFARROAKO GOBERNUA			EGA	
IKASKETA OFIZIALAK	DBH (47/2012 Dekretuaren baldintzak)	Batxilergoa (47/2012 Dekretuaren baldintzak)	Unibertsitate ikasketak (47/2012 Dekretuaren baldintzak C1erako)	Unibertsitate ikasketak (47/2012 Dekretuaren baldintzak C2rako).
	Teknikari titulua (47/2012 Dekretuaren baldintzak)	Goi mailako teknikari titulua (47/2012 Dekretuaren baldintzak)		
EUSKALTZAINDIA			D mailako titulua	
LABAYRU INSTITUTUA			3. maila (1982ko irailaren 19 baino lehenagokoa)	
IPARRALDE EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA-OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE			EGA	
BIZKAIKO EDO GIPUZKOAKO IRAKASLEEN UNIBERTS. ESKOLA PUBLIKOA			Diplomatura euskal adar batean. 1985az geroztik	
ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLA EDO DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKOA			Diplomatura euskal adar batean. 1984az geroztik	
IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLAK			Euskal Filologia alorreko irakasle-diplomatura	
UNIVERSIDAD			Euskal Filol. lizentziatura (2008-04-16 baino lehen)	

UNIBERTSITATE TITULUAK 47/2012 Dekretuaren I eta II eranskinetan arautuak (EHAA 74 zk.. 2012ko apirilaren 16koa)

UNIBERTSITATE TITULUAK ETA HE SALBUESTEA (47/2012 Dekretuaren I eranskina)			
Plan berria 1393/2007 Dekretuan araututako titulua			
Euskaraz egindako ikasketen bidez lortutako tituluak	**Baldintza gehigarria**	**Euskara hizkuntzako kreditu espezifikoak**	**HE**
48 ECTS	Euskaraz egindako gradu-amaierako lana edo Master Ofizialaren amaierako lana	12 ECTS	3HE
84 ECTS		12 ECTS	3HE
114 ECTS		6 ECTS	3HE
144 ECTS			3HE
Doktore titulua (tesia euskaraz idatzi eta defendatzea)			4HE
Euskal Ikasketen gradua edo Euskal Filologiako gradua			4HE
Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua. Euskara “A” hizkuntza .			4HE

UNIBERTSITATE TITULUAK ETA HE SALBUESTEA (47/2012 Dekretuaren II eranskina)			
Plan zaharra 1393/2007 Dekretua baino lehenagoko tituluak			
DATA 2008ko apirilaz geroztik eskuratutako tituluak izan behar dira			
Euskaraz egindako ikasketak	**Baldintza gehigarria**	**Euskara hizkuntzako kreditu espezifikoak**	**HE**
52 kreditu	Euskaraz egindako gradu-amaierako lana edo Master Ofizialaren amaierako lana	12 ECTS	3HE
84 kreditu		12 ECTS	3HE
114 kreditu		6 ECTS	3HE
144 kreditu			3HE
Doktore titulua (tesia euskaraz idatzi eta defendatzea)			4HE
Euskal Filologiako lizentziatura			4HE
Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziatura. Euskara “A” hizkuntza.			4HE

AURREKO SISTEMA TITULUEN ETA IKASKETEN BALIOKIDETZAK INDARREAN DAGOEN SISTEMAREKIN (L.O.E.)

Koadro honetan aipatzen diren ikasketen edo proben titulua edo ziurtagiri akademikoa aurkeztea nahikoa izango da dagokion baliokidetza egiaztatzeko
(Ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Aginduaren 5. art.) *

TITULUAK edo IKASKETAK	BALIOKIDETZAK	ONDORIOAK	BALDINTZAK	ARAUDIA
BATXILERGOko ikasketa partzialak LOGSE aurreko planak (1/1990 Legea), Oinarrizko Batxilergoa salbu	**BATXILERGO-titulua**	**PROFESIONALAK**	Goi-mailako proba edo errebalida edota, gehienez ere, batxilergo hartako 2 irakasgai gainditu gabe zituela adierazten duen ziurtagiri akademikoa.	**EDU/1603/2009 Agindua**ren 4.4. artikulua
UNIBERTSITATE AURREKO ikasturtea 1953ko otsailaren 26ko Legea	**BATXILERGO-titulua**	**GUZTIAK (A/P)**		**EDU/520/2011 Aginduak,** EDU/1603/2009 Aginduaren 2.3. artikulua aldatzen duena
IEEko 2. zikloko 1. ikasturtea	**BATXILERGO-titulua**	**PROFESIONALAK**	Gehienez ere, 2 irakasgai izatea gainditzeko.	Hezkuntza Ministerioaren **irizpideak,** 2010/09/03
BATXILERGO-titulua (BBB)	**BATXILERGO-titulua**	**PROFESIONALAK**		**LOE**ren 31. xedapen gehigarriko 2. idatz-zatia
UBI	**BATXILERGO-titulua**	**GUZTIAK (A/P)**		**986/1991 ED**ren I. eranskina
BATXILERGO-titulua (LOGSE)	**BATXILERGO-titulua**	**GUZTIAK (A/P)**		**806/2006 ED**ren 16. artikulua
TEKNIKARI LAGUNTZAILE titulua 14/1970 Legea	**BATXILERGO-titulua**	**PROFESIONALAK**		**EDU/1603/2009 Aginduaren** 1. xedapen gehigarria
LANBIDE HEZIKETAko TEKNIKARI titulua, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide Prestakuntza, edo Kirol-teknikaria	**BATXILERGO-titulua**	**PROFESIONALAK**		**EDU/1603/2009 Aginduaren** 1. xedapen gehigarria
Lehen Hezkuntzako MAISU- edo MAISTRAtitulu ofiziala	**BATXILERGO-titulua**	**GUZTIAK (A/P)**		**EDU/520/2011 Aginduak,** EDU/1603/2009 Aginduaren 2.4. artikulua aldatzen duena
GOI-MAILAko SARBIDE-PROBA gainditua - Lanbide Heziketa - Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lanbide Prestakuntza - Kirol-ikasketak	**BATXILERGO-titulua**	**PROFESIONALAK**	DBHko Graduatu-titulua edo ikasketa horien baliokidetza izatea.	**EDU/1603/2009 Agindua**ren 4.1. artikulua
GOI-MAILAko ARTE IKASKETArako SARBIDE-PROBA gainditua, 19 urtetik gorakoentzako	**BATXILERGO-titulua**	**PROFESIONALAK**	Baldintza hauetako BAT egiaztatzea: a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo ondorio akademikoetarako horren baliokidea den beste titulu bat izatea. b) Agindu honen 3. artikuluaren 1. puntuan ezarritako baliokidetza izatea. c) Goi-mailako arte-ikasketen 15 ECTS kreditu, gutxienez, gainditua izatea.	**EDU/1603/2009 Agindua**ren 4.2. artikulua

TITULUAK edo IKASKETAK	BALIOKIDETZAK	ONDORIOAK	BALDINTZAK	ARAUDIA
ARTE-IKASKETAK	**BATXILERGO-titulua**	**PROFESIONALAK**	Hori egiaztatzea, EDU/520/2011 Aginduaren II. eranskinean zerrendatutako dokumentu ofizialetako baten bidez [4].	**EDU/520/2011 Aginduak** EDU/1603/2009 Aginduaren 4.5. artikulua aldatzen duena
UNIBERTSITATEko SARBIDE-PROBA gainditua**,** 25 urtetik gorakoentzako	**BATXILERGO-titulua**	**PROFESIONALAK**	Baldintza hauetako BAT egiaztatzea: a) DBHko graduatu-titulua edo titulu horren baliokidea izatea ondorio profesionaletarako [5] b) Unibertsitate-ikasketen 15 ECTS [6] kreditu, gutxienez, gainditua izatea.	**EDU/520/2011 Aginduak,** EDU/1603/2009 Aginduaren 4.3. artikulua aldatzen duena

*** Ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Aginduaren 6. artikulua eta horren aldaketa, martxoaren 7ko EDU/520/2011 Agindua: Beste ikasketa batzuen baliokidetza, ondorio profesionaletarako:** «Beste ikasketa batzuk ondorio profesionaletarako baliokidetzeko eskaerak, aurreko artikuluetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluarekin edo Batxilergo tituluarekin zehaztu ez direnak, dagokion autonomia-erkidegoko organo eskumendunari egin beharko zaizkio; horiek Hezkuntza Ministerioaren aurretiko txosten loteslea eskatuko dute, baldin eta azken horrek ez baditu ezarri erabakia hartzeko ezarri beharreko irizpideak».

(4) Martxoaren 7ko EDU/520/2011 Aginduaren II. ERANSKINA: **4.5. artikuluan zehazten den egiaztapenerako dokumentu ofizialak:**
1. Dagokion espezialitateko musika-irakaslearen titulua, irailaren 10eko 2618/1966 Dekretuan arautua.
2. Musikako edo dantzako titulu profesionala, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrekoak, arautua.
3. Operako abeslariaren diploma, urtarrilaren 29ko 313/1970 Dekretuaren babesean emandakoa.
4. Dantzako ikasketa ofizial guztiak gainditu direla egiaztatzen duten dokumentuak, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrekoa, ezarri baino lehenagokoak: musika-kontserbatorioek, dantza-kontserbatorioek, eta arte dramatikoko eta dantzako eskolek emango dituzte, eta dokumentu horietan, berariaz adieraziko da ikasketa-plana osatzen duten ikasketak amaitu direla.
5. Musikako eta arte dramatikoko ikasketen tituluak edo diplomak, errege-dekretuz irakaskuntza-ondorioetarako lizentziatu-tituluaren balioa eman zaiena.
Musika:
a) 1942ko planeko musikako titulu profesionala.
b) Bakarlarien espezialitateko goi-mailako diploma, urtarrilaren 29ko 313/1970 Dekretuan arautua.
Arte dramatikoa:
a) 1942ko planeko irakasle-titulua eta teatroko aktorearen titulu profesionala.
b) Arte dramatikoko diploma, abuztuaren 9ko 2607/1974 Dekretuan arautua.

(5) Kasu honetan, ez du balioko ondorio profesionaletarako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluaren baliokidetzak, hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitateko sarbide-proba gaindituz lortutakoak.

(6) Martxoaren 7ko EDU/520/2011 Aginduaren Bosgarren xedapen gehigarria: Goi-mailako ikasketen ziurtagiria:
Agindu horretan 10 edo 15 ECTS kreditu gainditzeari buruz dauden erreferentzien ordez, lehenengo mailako kreditu-kopuruaren seiren bat edo laurden bat, hurrenez hurren, osatzen duten ikasgaiak gainditzea jarri beharko da baldintzatzat, edo, bestela, gutxienez, urte osoko bi irakasgai gainditzea edo lauhilekoko lau irakasgai, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak —unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzen dituenak— eta urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak —Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-ikasketen antolakuntza zehazten duenak— araututakoen aurreko ikasketetan.